

5. Lorentzo Hervas Panduro

1735-1809, Cuencakoa

Komunikazioaren egilea: Jabier Goitia Blanco bide ingeniari teknikoa eta geografoa da. Iberiar penintsula ondo ezagutzen du urtetan egindako ingurumen arloko lanagatik. Bere proposamen etimologikoak egiteko Instituto Geografikoaren 1.200.000 leku izen dituen datu base batekin egiten du lan, informazio geografikoa eskaintzen duen aplikazio batekin uztartuta. *ADN del Euskera en 1.500 partículas eta Diccionario Etimológico crítico del castellano* argitaratu ditu 18 liburukietan. <http://eukele.com/>

5.1. Bizitza



Cuenkako jesuita eta gizon unibertsala, agian Hervás da Balentziar Gregorio Mayanekin batera, espainiar estatuko ilustrazioaren adibiderik nabarmenena, XVIII. mendeko azken urteetako prestakuntza eta kulturarik osatuena izan zuen gizona. Nahiz eta historia ofizialak hori ez duen onartu nahi.

Matematiketan, Astronomian, Geografian eta Filosofian aditua, Hizkuntzetan ere saiatu zen, Jesusen Lagundiko kideek mundu osoko txoko guztietatik (gehienak Amerika eta Asiako) ekarten zizkioten hizkuntzen berriak ezagutzen. Horrela bildu zuen herrialde horietan mintzatzen ziren hizkuntzen informazio zabala.

Bilketa erraldoi hori esker, hizkuntzak modu egoki eta ordenatuan antolatu eta "Nazio Ezagunen Hizkuntzen Katalogoa" argitaratu zuen. Lan itzel honekin, Hervas garai haietako jakinduria entziklopedikoari aurreratu zitzaion, "Hizkuntzalaritza Konparatua" (HK) sortuz.


Saussureren "Metodologia Estrukturala" moda bihurtu zen eta XX. mende osoan, Hizkuntza Konparatua baztertua eta ahaztua izan arren, ba liteke berriro, ordenagailu, programak eta informatikari esker, Semantikaren arloa aktibatzea.

Oso kritikoa zen lehendik zetozen eta onartutzat ematen ziren kontu askorekin, adibidez, zelten hizkuntzarekin eta bere kartografiaren sorrerarekin (Ortelius holandarrak sortu eta garai hartan onartzen zen moduan). Berak ez zela horrela gertatu zioen. Estrabonekin bat zetorren Akitaniako hizkuntzak eta euskerak antza izan zutela (Gaskugna=Baskonia) eta batzuetan mitologiaren eraginez Betanzos Brigantia izan zitekeela aipatu zuen.

Minusbaliotasunen bat zuten pertsonen eta emakumeen eskubideen alde borrokatu zuen, oso argi eta garbi gainera, garai hartan oso ohikoa ez zena.

Ez dugu ahaztu behar garai hartan edozein arlotan berrikuntzak sortzeko zeuden zailtasunak. Izan ere, Elizak eta garaiko ikertzaileek Itun Zaharrean jasotakoaren arabera gertatu zela dena ulertzen zuten: munduaren adina hiru mila urteko Kristo aurretik zela... Horregatik, garai hartan, Darwini ere gero gertatu zitzaion moduan, sistemari eta ikuspegi ez zientifikoari aurre egin behar izan zitzairen edozein gauza berri planteatzerakoan.

5.2. Argitalpenak



[Wikipedeia: bibliografia](#)

Arlo askori buruzko liburuak idatzi zituen, 33 liburu Wikipediaren arabera. Hizkuntzei buruzkoak:

1. Catálogo de las Lenguas de las naciones conocidas y enumeración, división y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos (Madrid, 1800-1805, seis vols.).
2. Gramáticas abreviadas de las dieciocho lenguas principales de América.
3. Escuela española de Sordomudos o arte para enseñarles a escribir y hablar el idioma español (Madrid, 1795, 2 vols.) y un Catecismo de doctrina cristiana.
4. Gramática de la lengua italiana, manuscrito inédito.
5. Disertación sobre la escritura china, manuscrito inédito.
6. Historia del arte de escribir, 2 vols. manuscritos inéditos.

Idatzitako liburu batzuk etorkizuneko tekniken eta diziplinen aurrekariak ziren; esate baterako, gorren eta mutuen arteko komunikazioa hobetzeko lana...

HISTORIA DE LA VIDA DEL HOMBRE, siete tomos en 4.º á 16 reales á la rústica, 17 en pergamino, y 20 en pasta.
VIAGE ESTÁTICO AL MUNDO PLANETARIO, quatro tomos en 4.º á 14 reales á la rústica, 15 en pergamino, y 18 en pasta.
ESCUELA ESPAÑOLA DE SORDO-MUDOS, dos tomos en 4.º á 14 reales á la rústica, 15 en pergamino, y 18 en pasta.
CATECISMO PARA SORDO-MUDOS, que sirve tambien para toda clase de personas, un tomo en 12.º á 3 reales á la rústica, y 4 en pasta.
EL HOMBRE FÍSICO, dos tomos en 4.º: el primero á 16 reales á la rústica, 17 en pergamino, y 20 en pasta; y el segundo á 20 reales á la rústica, 21 en pergamino, y 24 en pasta.
CATÁLOGO DE LAS LENGUAS, seis tomos en 4.º á 18 reales á la rústica, 19 en pergamino, y 22 en pasta.
PREMINENCIAS Y DIGNIDAD de la casa matriz de Uclés, y su Prior Eclesiástico, de la Orden Militar de Santiago; con noticias sobre las antiguas ciudades Urci y Segóbriga, &c., un quaderno en 4.º rústica, á 8 reales.
DESCRIPCION del Archivo de la Corona de Aragon en Barcelona, y noticia del Archivo general de la Orden Militar de Santiago en Uclés, un quaderno en 4.º rústica, á 8 reales.

5.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Euskerari buruz "Euskaldunen denbora neurtzeko moduari buruz" liburuxka bat baino ez zuen idatzi, baina une hartako ikertzaile nabarmenenak ezagutu zituen, batez ere Manuel Larramendi. Horregatik, beste ikertzaile batzuek ez bezala, ondo ezagutzen zuen Euskera, esateko Iberiar hizkuntzen ama zela eta Espainia eta Portugalen toponimia nagusiki Euskeraz adierazita egon zela eta Italian ere ba zeudela antzeko leku-izenak.

Euskerari buruzko aipamenak aparte, (batzuetan "Kantabriar Hizkuntza" deitzen zion moduan) Hervasen gutun ugari gorde dira beste jakintsuari idatzita, baita ikerlari eta mezenasei, eta hoiek erakusten dute berarentzat Euskera, hizkuntza primitiboa zela. Perfekziotik gertu eta ahots eta kontzeptuekin inguruetako hizkuntzak elikatu zituenak. Berak argitaratutako liburuak eta lanak gaur egun aztertzeko zain daude.

Hizkuntza ugari ezagutzen zituenez, Sir William Jonesen baino lehen, germaniar hizkuntzen eta Indiako hizkuntzen arteko harremanak bazegoela proposatu zuen.

Aldi hartan, kultur mugimendu askok alderdi nazionalisten eta erromantikoen babesa zutenez, estatu indartsuak oso "absolutistak" izaten ziren eta une horretako ikertzaile eta zientzialari asko, estatu zentralistari hurbiltzen ziren, laguntza ematen zietelako. Beraz, nazio txikien aldeko edo tesi iraultzaileak babesten zituzten intelektualak, eraso jasan eta marjinatu zituzten sistematikoki. Horrela ulertzen da Hervasen tesiak eta planteamenduak aurrera ez egitea orduko gizartean.

Egoera horretan, Ilustrazioaren Garaian, balio eta adimen haundiko gizaki asko baztertu zituzten. Eta ez dugu pentsatu behar gaur egun hobeto gaudenik, dinamika hori, garai modernoetan indarrean jarraitzen duelako. Adibidez, gure Euskaltzaindiak eta bere bezalako akademiek gauza bera egiten dute, erdipurdiko pertsonekin elikatzen dira, Larramendi bezalako jendearen lanak baloratzeko gauza ez direnak.

Gure itzaropena, orain, tresna eta programa informatiko berriekin agertoki berri bat irekitzen dela eta ikertzaile xumeari laguntza ematen dietela. Lehen baliabideak soilik status quo edo erregimenaren lagun pribilegiatuek zituzten baina orain denok dauzkagu. Eta lanak txoko guztietara zabaltzeko aukera dugu.

Pentsatu dezagun bide onean gaudela, egiaren bila.